

**- Zein egoeratan bizi diren emakumeen kasuak ikertu dira *Emakumeak eta bizitoki bazterketa* izeneko txostenean? Zer ulertzen da bizitoki-bazterketa gisa?**

4 egoera desberdin banatzen ditu Bizitegi elkarteko ikerketak:

1. Aterperik gabe, kalean bizi direnak.
2. Etxebizitarik eduki ez, eta aterpetxe, harrera gunea, migratzaileentzako zentro edo espetxe batean bizi direnak.
3. Segurtasunik gabeko etxebizitza batean bizi direnak —kaleratze agindua jaso dutenak, kontraturik ez dutenak, behin-behinean senide nahiz lagunen etxean bizi direnak,...
4. Bizitoki desagoki bat dutenak, besteak beste, txabolak, etxebizitza masifikatuak edota gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak.

**- Normalki, zein egoeratan aurkitzen dira bizitoki-bazterketa bizi duten emakumeak? Zergatik?**

Aurreko lau egoera desberdinak aztertuta, normalean, emakume gehienak aurki daitezke etxebizitza prekarioetan, segurtasunik gabekoetan edota desesgokietan bizitzen. Halaber, emakumeentzat askoz arrisku suagoa izanki kalean bizitzea, bereziki pairatzen ahal diren sexu erasoen gatik errazkiago lerra daitezke egoera gordinago batzuei, hau da, prostituzioa kale gorriari ihes egiteko.

**- Zer gertatzen da gizarte zerbitzuekin emakumeei dagokienean?**

Ikerketa egin ondoren, ondorioztatu zuten, gizarte zerbitzuak gizonen beharrak asetzera begira daudela egituratuta. Baina honek ez du esan nahi emakumeentzat eskuragarri ez daudenik, baizik eta emakumeek, gizarte zerbitzuetara egokitu behar dutela. Jakina da, emakumeen egoera gizartean nolakoa den, eta intimitatea, espazio propioa, erasoen aurkako babesa edota segurtasuna bezalako beharrak, asetzeko baliabideak egotea garrantzitsua da.

**-Zein motatako neurriak proposatzen ditu elkarrizketatuak gizarte zerbitzuak emakumeengana egokitzeko?**

Elkarrizketatutakoak, gizarte zerbitzuak emakumeengana egokitzeko neurri bezala proposatzen du kultura aldatzea feminismoaren bitartez. Azken finean, erraten du jendearen kontzientziatzea honen inguruan dela manera bakarria miseria gizon eta emakumeentzat berdin kudeatua izateko.

**- Zein da gure iritzia honen inguruan?**

Ez dugu inondik inora ukatzen ez pairatzen duten miseria eta are guttiago desberdintasun bat izan daitekenik gizon eta emakumeen artean eta honek eragin dezakela egoera desagokiak bizi araztea gizarte zerbitzuetan baita ere emakume minoritatea gizonen aurrean deseroso izatea. Aldiz, proposatutako neurriekin eta gogoetarekin ez dugu bat egiten. Izan ere, iduritzen zaigu miseria kokatu ordez eta miseriaren kritika bat egin ordez, honen kudeaketaren proposamenara soilik mugatzen dela.